

## Giza gaixotasunak ikertzeko eredu hobea

Genomak sekuentziatzeko teknikak asko hobetu dira lehenengo genoma osoak sekuentziatu zirenetik, eta zientzialariek uste dute iritsi dela genoma gako batzuk birsekuentziatzeko unea. Horregatik, rhesus makakoaren genoma osoa birsekuentziatu du AEB, Itaila eta Alemaniako ikerketa-talde handi batek.

Makakoena da giza biologia eta gaixotasunak ikertzeko gehien erabiltzen den eredu medikoa; esaterako, hiesaren birusa hobeto ezagutu eta gaixotasunaren tratamenduak garatzeko, ebolaren aurkako txertoa garatzeko eta autismoa zein bestelako gaitz neurologiko batzuen tratamenduak sortzeko erabili da. Beraz, oinarrizkoa da makakoen erreferentziazko genoma eguneratua izatea, haren zehaztasunaren arabera izango baita gaixotasunetarako sortu dituzten ereduaren erabilgarritasuna ere.



ARG.: Wikimedia Commons.

2007an sekuentziatutako genoma-ereduak hutsune asko zituen, eta sekuentziazio berriak hutsune horien % 99,7 argitu ditu; zehaztu gabe zeuden hainbat elementu genetikoren kokapenak ere zehaztu ditu; eta elementu errepikakorren informazio argiagoa eman du. Makakoaren kartografia genetikoa askoz ere osatuagoa da orain. [Science aldizkarian argitaratu dute lana.](#) ●

## Bazterketa sistematikoa jasaten dute arlo zientifikoko LGTBIQ taldeko langileek

Michigango Unibertsitateak AEBko STEM arloko langileei (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika) egindako inkesta baten arabera, beren burua LGTBIQ taldekotzat dutenek bazterketa nabarmena pairatzen dute.

Esate baterako, lan-garapenerako aukera gutxiago izaten dituzte, eta sozialki baztertuago sentitzen dira (% 32k aitortzen du bazterkeria soziala; kolektibo horretatik kanpo, % 23k). Sexu-jazarpenera besteek baino gehiago pairatzen dute (% 20k, % 14ren aldean).

Egoera horrek ondorio kaltegarriak ditu LGTBIQ taldeko langileen osasunean eta ongizatean: % 78k estresa du (besteen artean, % 61k); % 59k ondoez arinak, hala nola buruko mina edo urdailekoa (gainerakoetan, % 43k); eta % 37k loezina (% 22ren aldean).

Horren guztiaren ondorioz, azken urtean % 22k lana uzteko asmoa izan du (gainerakoetan, % 15k). Ikertzaileen esanean, ezinbestekoa da zentro zientifiko-teknologikoen, elkarte zientifikoek eta finantza-eragileek neurriak hartzea, parekidetasuna bermatzeko eta heteroarautik kanpo dauden pertsonak barneratzeko. Horrez gain, gogorazi dute dibertsitatea onuragarria dela, eta dakartzan ondorio positiboak nabarmenak direla, STEM arloan ez ezik, baita gizarte osoan ere. ●



LGTBIQ taldeko langileek gainerakoek baino bazterkeria handiagoa pairatzen dute, STEM arloko diziplina eta maila profesional guztietan. ARG.: © Olga Miltsova/123RF.